

# **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

## **Baliabide fisikoak**

Gure proiekturako lokal bat alokatuko dugu gure hiriko Kale Nagusian, Irunen, eta denda fisiko gisa erabiliko dugu, baina bere funtzio nagusia bulegoena izango da. Bulegoetako altzariak hainbat establezimendutan erosiko ditugu, hala nola IKEAn. Gainera, furgoneta handi bat erosiko dugu, muntaiaz arduratzen diren azpikontratatuak beren lanerako erabil dezaten.



## **Baliabide intelektualak**

Gure ohiko saltzaileak Brico Depot eta Leroy Merlin izango dira, baina gure web orria izango dugu, guk geuk desarrolatua, eta bertan salduko dugu gure StepDry. Benetan produktu iraultzailea denez, patentatzea erabaki dugu, guk bakarrik fabrikatzeko eta saltzeko eskubidea izan dezagun.

## **Giza baliabideak**

Lehen aipatu dugun bezala, ekoizpen- eta instalazio-prozesu osoa horretarako azpikontratatuak enpresei lotuta egongo da. Bestalde, bulegoko lana, kontabilitatea eta enpresaren sustapena gure esku egongo dira, hau da, gu arduratuko gara lan horietaz. Oier eta Aimar arduratuko dira bulegoko lanetaz adibidez, gure hornitzaileekin harremanetan jarriko dira. Zuriñe eta Joti, berriz, kontabilitate lanak egingo dituzte adibidez, diru sarrerak eta bezeroekiko harremanak zainduko dute. Bukatzeko, enpresaren sustapena lauen artean eramango dugu.

## **Finantza baliabideak**

Enpresarekin hasteko, kreditu bat eskatuko diogu banku bati, eta kapital pixka bat jarriko dugu gure eskutik. Hori guztia enpresaren jarduerari ekiteko, hau da, produkzioari, banaketari, muntaketari etab. ekiteko. Eskatutako diruaren zati bat erabiliko dugun puntuetako bat SL sortzeko izango da. Jarduerarekin



hasitakoan, gastu finkoak izango ditugu, eta, produkzioaren arabera, gastu aldakorrak. Gastu horiek salmenten etekinak itzultzeaz arduratuko gara.